

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera ateratzeko eta eraikitzeko, hainbat elementu hartu behar dira kontuan. Kasu honetan honako hauek erabiliko dira: finantza-baliabideak, giza baliabideak, baliabide intelektualak eta baliabide fisikoak.

- **Finantza-baliabideak:** Diru-iturriak erabiliko dira, hau da, jendeak diru bilketetan emandakoak, baita gobernuak emandako laguntza ere. Diru bilketa hauek hilabetero egingo dira eta hilabeteko azkeneko egunean diru guztiaren kontaketa egingo da.
- **Giza baliabideak eta baliabide intelektualak:** Bi hauek nahiko antzekoak dira, baina ez dira fisikoak edo zerbait materiala; sormena, ordenagailuak edo mugikorrek erabiltzeko norbaitek duen abilezia, esaterako. Kasu honetan erabiliko diren giza baliabideak, orientatzaileak izango dira, eta baliabide intelektualak, berriz, egiteko horretan esperientzia duten baliabideak izango dira.
- **Baliabide fisikoak:** Lanerako erabiltzen diren materialak dira hauek, adibidez; ordenagailua, telefonoa, makinak, etab. Kasu honetan lokala erabiliko da eta, beraz, hau izango da baliabide fisikoa. Bertan, lo egiteko leku bat, sukalde eta jantoki bat, eta egongela moduko bat egongo da, beraiantzat oinarritzkoak diren baliabideak egongo dira.